

GURE ESKOLA, GURE UDALA

Sekuentzia honetan Durangoko udala zelan osatzen den, zelan osatu izan den ikasiko dugu gero gure eskolan guztioi dagozkigun gaiak guztion artean landu eta erabakiak hartu ahal izateko.

<i>Mari eta konpainia</i>	2
<i>Udala, herritarren erakunde nagusia</i>	3
<i>Durangoko kontzejua</i>	4
<i>Udala lehen eta orain</i>	5
<i>Sufragio unibertsala</i>	5
<i>Gure udala, gure eskola</i>	6
<i>Behatu, hobetzeko</i>	6
<i>Azken ekoizpena: ondorioak atera</i>	7
<i>Kontuan hartzekoak</i>	8
<i>Zer ikasi dut?</i>	8

Lege gordailua: SS 1161-2015 • **Argitaratzailea:** Durangoko Udala eta Iametz Interaktiboa • **Koordinazioa:** Iametz Interaktiboa • **Edukien egilea:** Unai Iturriaga • **Diseinua eta maketazioa:** Garbine Ubeda Goikoetxea • **Hezkuntza aholkulariak:** Jon Akarregi, Ander Goikoetxea eta Josu Retolaza • **Argazkiak:** Anboto aldizkaria eta Bizkaiko Foru Aldundia. • **Kolaboratzaileak:** Landako eskola, Kurutziaga ikastola, San Jose Jesuitak ikastetxea, San Antonio-Santa Rita ikastetxea, Frai Juan Zumarraga institutua, Nevers ikastetxea eta Zabalarra eskola. • **Inprimategia:** Antza, S.A.L.



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Kultura
Saia
Departamento
de Cultura

Mari eta konpainia



ZER DIOZU?

- Helduak elkarren artean konpontzeko gai ez direla uste duzue zuek ere?
- Zuei dagozkizuen gaietan zeuok bakarrik erabakitzea gurago zenukete?
- Helduek zuen iritzia kontuan hartzen dutela uste al duzue?

Durango txikia

Sekuentzian zehar gure Durango txikia sortzen joango gara. Gaiarekin zerikusia daukan edozein material ekarri dezakezue, liburuak, argazkiak, objektuak... Seguru gure azken ekoizpena egiteko lagungarri izango zaizkigula!

IDEIAK BATU ETA ANTOLATU

Komikia irakurri ostean gelan agertutako iritzi nagusiak idatzi. Interesgarriak deritzezuen ideiak azpimarratu.



Herritarron erakunde nagusia

Durangon udaletik kudeatzen dira durangarrok erabiltzen ditugun zerbitzu asko eta bertan hartzen dira etorkizunean Durangori eragingo dioten hainbat erabaki ere.

Zelan aukeratzen dira udaleko ordezkariak?

Gaur egun Durangok 30.000 biztanle eskas ditu eta, horien artean, 18 urtetik gorakoek dute lau urtean behin udal-hauteskundeetan botoa emateko eskubidea. Botoa ematea erabakitzen duten horiek hogeita bat zinegotzi aukeratuko dituzte eta zinegotzi horien artean babesik handiena lortzen duena, hura izango da Durangoko alkatea.



Durangoko udal batzarra 2015ean. Argazkia: Anboto aldizkaria.

Zerbitzuak. Argazkiotan ageri diren zerbitzuen artean zeintzuk dira udalaren ardura, zure ustez? Zergatik? Ezagutzen duzu besterik? Zein?



Kanpoko igerilekuak.



Hondakinen bilketa.



Autobus zerbitzuak.



Jolas parkeak.



San Agustín Kulturunea.



Arripausuetako kirolgunea.

Durango kontzejua



Osaba Bitorrek diño

“Durango sortu zen aspaldi garai hartan, zelan osatzen zen udala?”.

Horixe da Osaba Bitorri egin diodan galdera. Uste dut siestatik jaiki berritan harrapatu dudala, edo bihotzerrea izango zuen bestela, ze, halaxe bota dit, zapla: “Internetez, Mari, internetez!”. “Erdi Aroan ba al zegoen, ba, internetik?”. Esaldia amaitu orduko mahai gainean zabaldu du Osaba Bitorrek hain gustuko duen Durangoko Hiribilduaren lamina. Entzutea gustuko ez dudala badakien arren, esan dit: “Entzun ondo, ume!”.

Osaba Bitorrek dio Erdi Aroko aspaldi hartan guk udala deitzen diogun horri Kontzejua deitzen ziotela. Garai hartan Durangoko hiribildua harresiz inguratuta zegoen eta harresiz barrurako biztanleen artean aukeratzen zuten Kontzejua, errebaletan bizi zirenek ez baitzeukaten horretarako eskubiderik. **“Urtez urte, irailaren amaieran, bi hautesle aukeratzen zituen kale bakoitzak; bat, kantoitik gorakoa, eta bestea, kantoitik beheakoa eta, gero, horien artetik, alkatea eta gainontzeko karguak”** dio Osaba Bitorrek.


“Orduan, gaur egun bezala baina alde zaharrekoen artean bakarrik, ezta?” bota diot. “Ez, ume, ez!”. Baldintza batzuk bete behar ei ziren bai botua emateko eta baita hautatua izateko ere. **“besteak beste, etxearen jabea izan behar zuen hautesleak, hogeita bost urtetik gorakoa eta, alkate kargurako hautatua izan gura zuenak, balio handiko ondasunen jabe zela aitortu beharra zuen”**. Diru kontuak tarteko izaten diren guztietan legez, badirudi hiribilduko leinu aberatsenak Kontzejuko karguak euren artean banatzeko modua egiten saiatzen zirela.

“Gaur egun bezala zela deritzozu, Mari?”. Ezberdintasunak bistakoak dira baina badaude antzekotasunak ere, pentsatu dut neure baitarako. “Eta, jakina, emakumezkoek ezin zuten bozkatu”. Amorratu egin naiz, sutu belarrietatik txinpartak ateratzearaino: “ZERGATIK?!!”. “Hori galdetu zure gurasoei, ume. Siestatik jaiki nauzu eta itzelezko burukominez nago”.



ALDERATU

- Durangoko udala gaur egun eta Erdi Aroan zelan osatzen zen ikasi dugu. Hitz egin gelakideon artean izan diren aldaketei buruz eta, ondoren, azpimarratu itzazu garai bien artean nabarmenenak iruditzen zaizkizuen desberdintasunak.



Sufragio unibertsala

Hala deitzen zaio **hiritar heldu guztiek** botoa emateko duten eskubideari, sexu, arraza, sinesmen edo gizarte-baldintzan oinarritutako **ezelako bereizketarik barik**.

XIX. mendearen azkenetan eta XX. mendearen hasieran hartu zuten oihartzuna emakumezkoen botoa emateko eskubidearen aldeko mugimenduek munduko zenbait tokitan. Durangori dagokionez, Espainiako gorteek 1931. urtean onartu zuten sufragio unibertsalerako eskubidea. **1933ko hauteskundeetan gauzatu ahal izan zuten lehenengoz eskubide hori emakume durangarrek.**

1936ko altxamendu faxistaren osteko diktaduraren erruz, berrogei urtean ez zen libre bozkatzerik izan, gizon zein emakume izan.

Bazenekien?



Pilar Ardanza Uribarren izan zen Durangoren historian alkate kargua izan duen lehenengo emakumea. 1989 eta 2003 urteen artean bete zuen ardura hori.



Gure eskola, gure udala

Udal batek hainbat alorri erreparatu behar izaten dio. Begi bat gaurko egunean eta bestea etorkizunean jarrita lan egin behar du beti. Horretarako, jakina, udalean lan talde itzela dago. Berrehundik gora langilek egiten dute zuzenean behar Durangoko udalean: udaltzainak, teknikariak, kirol-monitoreak, irakasleak, arkitektoak, igeltseroak, informatikariak...

Eta zuen eskolan? Badakizue zenbat lagunek osatzen duzuen zuen eskola-komunitatea? Ikertu, galdetu eta osatu ondorengo atala.



Zenbat gara eta nor gara gure eskola-komunitatean?

- IKASLEAK:
- IRAKASLEAK:
- GURASOAK:
- ATEZAINAK:
- MANTENUA:
- GARBIKETA:
- JANTOKIA:
- BESTERIK:

Behatu, hobetzeko

Gure eskola gure udala dela esan dugu. Guk ordea ez dugu hauteskunderik egingo ikasgela delako gure udalbatza. Hala ere, ardura batzuk hartuko ditugu eta horretarako bi taldetan banatuko gara.

1. JANTOKIKO TALDEA

- Jantokiko taldearen ardura izango da astebetetz bertan ematen den menuari eta ikasleen jarrerari erreparatzea.
- Menuari dagokionez, elikadura osasuntsuaren piramideari erreparatu eta bertan agertzen diren gomendioak betetzen diren aztertu (zer jaten dugu, zein maiztasunekin...).
- Ikasleen jarrerari dagokionez: zein jaki dituzten gustukuen eta zergatik; zelako jarrera duten jantokiko langileekiko eta euren mahaikideekiko; beste-lakorik...
- Jantokia txukun mantentzeko ohiturarik baden...

2. JOLASTOKIKO TALDEA

- Jolastokiko taldearen ardura izango da astebetetz jolastokiko espazioa nola erabiltzen den aztertzea.
- Zelan eta nork okupatzen ditu espazioak? Mutilek neskak baino espazio gehiago hartzen al dute? Nagusiagoek txikiagoen espazioak hartzen al dituzte?...
- Ba al dago baloirik gabeko egunik?
- Zer jolas-ekintzak biltzen ditu talde handienak?
- Inor baztertzen al da jolastokian? Zergatik...



ONDORIOAK ATERA

- 1 Astebeteko behaketa egin ostean, taldean batu eta proposatutako galderak gida moduan erabiliz, ondorioak zerrendatu.

- 2 Ateratako ondorioetatik zuzentzeko aspektuak ikusten dituzuen gaietan zuzentzeko proposamenak jaso idatziz (beharrezkoa izanez gero erabili marrazkiak, argazkiak edo egokien deritzozuen materiala) eta zuen ikaskideen aurrean aurkeztu. Besteen iritzia jasota seguru proposamena aberastu egingo duzuela.

- 3 Ikaskide guztion artean proposamena adostu ostean eskolako zuzendaritzari aurkeztu. Seguru zuen iritzia eskertuko dutela baina zuek, badaezpada, kontuan hartzen duten ala ez, jarraipena egin!



Kontuan hartzekoak

- 1 Behaketari ekin aurretik bakoitzak zein alorri erreparatuko dion argi izan.
- 2 Ondorioak zerrendatzerakoan guztien iritzia jaso eta denei garrantzi bera eman.
- 3 Ondorioak ikaskideen aurrean azaltzerakoan argiak eta zehatzak izan. Ulergarriago egiteko lagungarria bada, adibideak jarri inor izendatu barik.
- 4 Beste taldeko ikaskideek egindako ekarpenak kontuan hartu. Entzuten jakitea hitzegiten jakitea bezain garrantzitsua da.
- 5 Zuzendaritzari aurkeztu beharreko proposamena aho batez defendatu.

Zer ikasi dut?

1. Zer ikasi dut?

.....

.....

2. Zelan ikasi dut?

.....

.....

3. Zer ikasi dut nire ikaskideengandik?

.....

.....

4. Emandako informazioa, materiala, egokia izan da?

.....

.....

5. Gehien gustatu zaidana

.....

.....